



Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Aldizkaria

13. alea, 2011ko urria



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK.....	2
ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA.....	2
BALIABIDEAK	3
ALIAZTAK	4
IKASLEAK.....	5
ESKOLAK ANTOLATU EDO BERMATUTAKO JARDUERAK	6
INTERESEKO AKORDIO ETA ERABAKIAK	8
BALIABIDE ETA AIPAMEN INTERESGARRIAK	17

[Para acceder al contenido en Castellano, pulsa aquí.](#)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad
del País Vasco

eman ta zabal zazu
Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKEZPENA

Hasi dugu 2011/2012 ikasturtea. Jende berri ugari dugu gure artean, Gradu lehenengo mailako ikasleez gain, egokitze-ikastaroan matrikulatu diren 21 pertsona ere hemen daude eta. Ikastegiak, bere aldetik, aurretik martxan jarritako proiektuekin jarraitzen du. Horien artean kalitateari buruzkoa nabarmentzen da. Xede horrekin prozesuetako arduradunak euren zereginetan lanean eta heziketa jasotzen jarraitzen dute. Oraintsu itxi berri den etapak hainbat gaitan hausnarketak egiteko beharra agerian jarri du, esaterako, gradu amaierako lanen inguruan. Ondorioz, gaiari buruzko araudia aldatzea erabaki da. Ikasturte berriarekin Eskolako gune ezberdinak gaitu dira guztien erabilerarako, beste batzuen erabilera aldatu den bitartean. Aldaketa horiek guztiak talde osoaren onurarako izatea espero da.

[Aldizkari hau idazterakoan sexuen arteko berdintasuna gordetzen saiatu gara.](#)

Argitaratzeko zerbait bidali nahi baduzu egizu [helbide honetara](#).

IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Doktorego Ez Ohiko Saria: Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako irakaslea den Juan Hernández Zubizarretak Doktorego Ez Ohiko Saria eskuratu du (Gizarte eta Zuzenbide Zientziak, 2008/2009 Ikasturte akademikoa) *“Sistemas de regulación de las empresas transnacionales en el marco de la globalización económica: códigos externos e internos en el ámbito de las relaciones laborales”* bere doktorego tesiagatik. Zorionak!

Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak: Uda ondoren, Javier Laforga, azken denboraldian Eskolako idazkaritzan lanean aritu den lankidea, Liburutegian zerbitzu-eginkizunetan hasi da lanean. Bere ordean, Rafael Ruiz Sánchez dugu gure artean. Aldaketa hau matrikula eta automatrikula garaian burutu zenez, Gerentziatik laguntza berezia eman ziguten, eta horrela, Aurora Arnaiz azaroaren amaiera arte gurean izango da.

Kudeaketako XXII. Portugalder-Espainiar Jardunaldiak: Portugalgo Vila Real hiriko Tras-os-Montes eta Alto Duero Unibertsitateko Ekonomia, Soziologia eta Kudeaketa Sailak eta Garapenerako Ikasketak Zentruak, 2012ko otsailaren 1a eta 3aren bitartean ospatuko diren Jardunaldi hauek antolatzen dituzte. Proposatutako gaia *“Sociedad, Territorios y Organizaciones: Inclusiones y competitividad”* da, gaurkotasan handia duelako, gizarteak, langabezia, pobrezia eta gizarte kanporatzea nagusi diren krisi bati aurre egin beharreko bidegurutzean baitaude. Lurraldeek, mundu global batean, lehiakortasuna eta sostengarritasuna bultzatzeko erronka dute. Arlo ezberdinetako antolaketak erantzun bila dabilta parte hartzea, erantzukizuna eta barneratzea areagotuko duten kudeaketa eta gobernurako eredu berriak eraikitze nahian. Jardunaldietan parte hartzeko gonbitea kudeaketan aditu eta administrazio, enpresa-antolaketa eta hirugarren arloko eremuetan interesaturik dauden profesional eta akademikoei egiten zaie. Bertan euren ikerkuntza empiriko, garapen teoriko eta kasu praktikoa elkarrekin eztabaidatzeko aukera izango dute. Ponentziak bidaltzeko azken eguna azaroaren 15a da (abenduaren 8a baino lehenago jakinaraziko da onartu den edo ez). Gainkargarik gabe izena emateko epea abenduaren 15ean ixten da (abenduaren 16tik 2012ko urtarrilaren 15era izena emateak gainkarga bat izango du). Informazio gehigarria nahi izanez gero, kontaktu honetara idatziz lor daiteke jornadas.gestao@utad.pt.

ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA

2011/2012 ikasturteko matrikula: 2011/2012 ikasturteko matrikula burutu eta gero, honako hauek dira ateratzen diren zenbakiak: Gradu lehenengo mailan 114 ikasle, bigarrean 108, hirugarrenean 72 eta laugarrenean 102 matrikulatu dira. Bestetik, Diplomaturako lehenengo mailan 6, bigarrean 10 eta hirugarrenean 61 ikasle daude matrikulaturik. Horrez gain, masterrei dagokienez, Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Masterrean 33 ikasle ditugu eta Lan Segurtasun eta Osasunean Masterrean 35. Honela, guztira matrikulatutakoen zenbakia 541ekoa da (egokitze-ikastaroko 21 ikasleak barne), 396 Graduan, 77 Diplomaturan eta 68 Masterretan.

Eskola Batzarra: 2011ko urriaren 17an ospatutako Eskola Batzarrean Ikastegiko zuzendaritzak bertaratu zirenei pasa berri den ikasturtearen amaierari eta aurtengo ikasturteari buruzko informazioa luzatu zien, besteak beste, matrikula, gradu amaierako lanen defentsa, ikasleen mugikortasuna eta praktikak. Hartutako erabakiei dagokienez,

konpetentzia eta moduluen koordinazioari buruzko dokumentua, irakaskuntzarik ez duten Diplomaturako ikasgaien deialdia irailetik eainera aurreratzea, gradu amaierako lanaren araudian sartutako aldaketak, Ikastegiko Kalitate Batzordearen Erregelamendua (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak dagoeneko onarturik zuena), ikasleriaren artean Eskola Batzarrerako hauteskunderen egutegia, irakasleen ordezkapen plazak eta Eskolak bermaturiko ikastaroen aintzatespena aipatu behar dira. Ikastegiaren izenari dagokionez, Batzarrak Errektoreari Eskola Lan Zientzietako Fakultate izatera pasatzeko beharrezkoak diren ekintzak aurrera eramateko eskaera zuzentzea adostu zuen, era honetan orain dela urte bi egindako eskaerari erantzun emanez.

Eskolako Kalitate Batzordeko Erregelamendua: Erregelamendu honen helburua Eskolako Kalitate Batzordearen egitura, osaketa eta funtzioak zehaztea da, organo hori baita Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduaren titulurako Kalitatearen Barne-Berme Sistemaren erantzulea. Testuinguru honetan, bere funtzioak honako hauek dira: Ikastegiko Kalitatearen Barne-Berme Sistema diseinatzea, ezartzea, martxan jartzea eta jarraipena egitea, adierazleen bidez prozesuen jarraipena egitea, zuzendaritza taldeari proposamenak luzatzea, Ikastegiaren urteko xedeen formulazioa jaso eta koordinatzea, hala nola, horien betearaztearen jarraipena egitea, betetze-inkesten emaitzak jaso eta hobekuntza proposamenak egitea, urtero, Kalitatearen Barne-Berme Sistemaren analisi eta berrikuspenetik abiatuz, jarraipen txostena egitea tituluan zehaztutako xedeak betetzeko hobekuntza-ekintzak proposatuz, titulazioaren akreditazioa lortu eta berritzean parte hartzea, Ikastegiko politika eta xedeen komunikazio baliabide funtzioak betetzea, titulazioaren curriculumaren planifikazio eta hedaduran parte hartzea, irakasleria irakaskuntzarako baliabide eta metodologietan trebatzeko bultzatzea, Batzordeko kideak eta Ikastegiko interes taldeak kalitate eta ebaluazioan trebatzeko bultzatzea, Ikastegiko zuzendaritzari Kalitatearen Barne-Berme Sistemari buruzko aholkuak ematea eta Eskola Batzarrari bere eskumen-eremuko ebazpenak onartzeko proposamenak egitea. Bestetik, Eskolako Kalitate Batzordea 9 pertsonak osatzen dute. Karguagatiko kide gisa zuzendaria, edo bera ordezkatzeko duena, eta titulazioko koordinatzailea daude. Horiekin batera, Batzordeko kide izango dira baita ere, IIPko 5 ordezkari (zuzendaritza taldeak hautatuko ditu Graduan irakaskuntza duten sailen proposamenez), AZPko ordezkari 1 eta ikasleriaren ordezkari 1, Ikasleen Kontseiluaren proposamenez. Horien guztien izendapena Eskola Batzarrak egingo du eta agintaldia, ikasleriaren ordezkariaren kasuan, bi urtekoa izango da, eta gainontzeko kasuetan lau urtekoa. Kalitate Batzordearen funtzionamenduari dagokionez, bilerak lau hilero ospatuko ditu. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, erabakiok izaera betearazlerik izango ez duten arren.

“Lan Harremanak” aldizkaria: “Lan Harremanak” aldizkariaren argitalpenak ekarri dituen arazo ekonomikoak direla eta, 24. alea *“Adina, erretiroa eta lan merkatuan irautea”* izango da paperean argitaratuko den azkena. Hemendik aurrera, hurrengo aleak formatu digitalean argitaratuko dira. “Lan Harremanak” aldizkariko Erredakzio Kontseiluak Eskolako irakasle guztiei gonbitea egiten die aldizkariaren datozen aleetan artikuluren bat argitaratzeko aukera balioets dezaten. Era berean, gonbitea beste irakasle eta ikertzaileei ere zabaltzen zaie. Hurrengo aleetako gaiak honako hauek dira: *“Lan diskriminazioak genero arrazoiak medio”* (25. alea) eta *“Lan eta gizarte eskubideak krisi garaietan”* (26. alea). Artikuluak emateko epea 2011ko azaroaren 30a arte (25. aleari dagokionez) eta 2012ko apirilaren 30a arte (26. alearen kasuan) egongo da irekirik. Horrez gain, beste edozein gizarte edo lan gairi buruzko artikuluak ere aurkez daitezke sekzio irekian argitaratzeko.

BALIABIDEAK

Informatika gelak: Urriaren 1etik aurrera, Eskolako informatika gelak irakaskuntzarako zein ikasleek euren lanak eta kontsultak egiteko erabili ahal dira. Gelen erabilera egokia bermatzeko, gela hauetakoren bat irakaskuntzarako erabiltzea nahi duten irakasleek erreserba egin beharko dute, gutxienez, erabileraren aurreko astean. Era honetan, ostiralero geletako ateetan eta web orrian hurrengo astean informatika geletan irakaskuntza-orduei buruzko ordutegia argitaratuko da. Gainerako orduetan gelok Ikastegiko ikasleentzat irekirik egongo dira.

Astilekua, jantokia eta ikasteko aretoa: Ikastegiak gune berriak ireki ditu bigarren solairuan. Honela, bi jantoki ditugu, bata administrazio eta zerbitzuetako langile eta irakasleentzat eta bestea ikasleentzat. Jantokiok, Zuzenbideko Fakultatearekin partekatzen dena, irekirik egongo dira 12.30etatik 15.30etara. Horrez gain, ikasleen jantokia egun osoz egongo da irekita astileku modura (8.30etatik 12.30etara eta 15.30etatik 19.00etara). Hala ere, gunea 16.00etatik 16.30etara itxi egingo da garbiketa lanetarako. Bestetik, bigarren solairuan bertan, ikasteko aretoa ireki da. Bere irekiera ordutegia goizeko 8.30etatik iluntzeko 20.00etara artekoa da. Lanak taldeka egitea nahi izanez gero, dagokion gela erreserba Atezaintzan egin daiteke.



“Sareak” Ikastegiko web orrian: Orain dela hilabete batzuk Eskolako web orrian “Sareak” deituriko atal berri bat sartu genuen http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/eu/contenidos/informacion/rll_redes/eu_redes/redes.html helbidean. Ideia, ikuspuntu sozio-ekonomiko eta lan-ikuspegitik gaurkotasuna duten gaien buruzko argitalpenak, jarduerak, erreferentziak, etab. bertan sartzea da. Bidea interesgarri iruditu zaizkigun argitalpen batzuekin hasi dugu, non krisi ekonomiko eta enpleguaren ohiko arrazoi eta erantzunen alternatiba islatu nahi izan den. Edonola ere, atal berri hau gure sareak indartzeko baliabide egokia izan dadin, Ikastegiko komunitate osoak ekarpenak egitea gustatuko litzaiguke.

ALIA NTZAK

Lan Harremanen eta Giza Baliabideen eremuan Ikasketa Berrikuntzako II. Nazio mailako Jardunaldiak: Ángel Elíasek, Eskolako zuzendariak, parte hartu zuen jardunaldi hauetan eta bertan gure Eskolan izandako esperientziei buruzko bi komunikazio aurkeztu zituen, bata Gradu Amaierako Lanari buruzkoa, eta bestea Titulazio Tutoretzei buruzkoa. Komunikazio horiek hurrengo asteetan argitaratuko dira. Huelvako Lanaren Zientzien Fakultatean irakaskuntzan erabilera oso garrantzitsua duen euren telebista ere dutela azpimarratu behar da. Era berean, jardunaldi horietan beste ikastegi batzuekin kontaktuak egin ziren. Horiek direla eta, epe laburrean zuzendaritza taldea Kantabriako Unibertsitatean bisitan joango da eta jarraian bertako dekanotza taldea gurera etorriko da. Hurrengo jardunaldiak 2012ko ekainean ospatuko dira Valentzian.

Bilbao'11 Lanaren Medikuntza eta Segurtasuna Kongresua, “Aptos para el trabajo, pero ¿Trabajo apto para todos?”: Espainiako Lanaren Medikuntza eta Segurtasuna Sozietateak (SEMST) azaroaren 17an eta 18an, Lanaren Medikuntzako Euskal Sozietateak (LMEE-SVMT) antolatutako, eta besteak beste, gure Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren laguntzarekin, bere Estatu mailako topaketa ospatuko du Bilbon, Euskalduna Jauregian. Jardunaldian jorratuko diren gaien azterketa (osasuna arrantza-arloan, lan osasuna etorkizuneko erronka gisa, lanerako gaitasuna, enpresako osasun zerbitzuak, lanaren medikuntzaren arloan auditoria, estresa, depresioa eta burnouta, enpresa kudeaketan prebentzioa sartzeko praktika onak, etab.) hitzaldi, mahai-inguru, mahai eta tailerretan garatuko da. Jardunaldi hauei buruzko informazio gehiagorako, bai eta izena emateko orrietara sartzeko, <http://semst2011.drugfarmacongresos.com/>.

Estatu mailako Lan Harreman eta Lan Zientzien Unibertsitate Ikastegien Elkartearen Aldizkaria: Aldizkariaren zuzendaritzatik jakinarazi digute 25. Zenbakiko zati monografikoan zein sekzio irekian argitaratzeko lan berriak hartzeko epea irekirik dagoela. Aldizkaria Aldizkari Zientifikoaren Portalean dagoenez, orijinalen ediziorako zehazturiko protokoloa jarraitu behar da. Prozesu guztia modu automatikoan garatzen da <http://www.uhu.es/publicaciones/ojs/index.php/trabajo> web orrian.

IKASLEAK

Gradu amaierako lanak: Azkenik, 15 izan dira 2010/2011 ikasturtean gradu amaierako lanak defendatu dituzten ikasleak. Lehenengo esperientzia honen balorazioa positiboa izan da, aurkeztutako ikasleek kalifikazio oso onak lortu dituzte eta (bi 7.00, 7.50 bat, hiru 8.50, lau 9.00, 9.50 bat eta lau 10.00). Hala ere, prozesuan parte hartu duten pertsonen hainbat alderdi ahalik eta lasterren hobetzeko beharra sumatu dute. Xede horrekin, urriaren 17an ospatutako Eskola Batzarrak gradu amaierako lanen egite eta defentsari buruzko araudiaren garapenean berrikuntza batzuk sartzea onartu zuen. Zehazki, UPV/EHUko araudiak, gradu amaierako lanean matrikulatu ahal izateko, ikasketa plana amaitzeko kreditu guztietan matrikulaturik egotea eskatzen duenez, eta horrek oraindik praktikak eta antzeko jarduerak amortizatu gabe dituztenei ikasgai horretan matrikulatzea eragozten dienez, bigarren erregistro bat eratzen da, pertsona horiei antzeko tratamendua emateko, beti ere, matrikulaturik badaude eta graduko bestelako kredituak eginak dituztela kreditatzen badute. Era berean, bigarren erregistro honen bidez ikasle guztiek ikasturte osoaren zehar euren eskaera erregistratzea eta poltsan dauden gairen bat aukeratzea (edo berri bat proposatzea) ahalbidetzen da. Bestetik, Sailak egindako gradu amaierako lanaren eskaintzaren argitalpenean lana zuzenduko duen irakaslea adierazteari buruzko eskakizuna kentzen da. Ikasleriaren gehiengoa Diplomaturatik datorrenez, era honetako lanek eskatzen duten ikerkuntza, hausnarketa, etab.en mentalitategabeziaren ondorioz sortutako arazoei dagokienez, “Gizarte ikerketarako teknika kualitatiboak” ikasgaia gaingiturik ez duten ikasleei metodologiari buruzko gutxieneko ezagutza maila kreditatzea eskatuko zaie. Horretarako Ikastegiak dagokion materiala emango du. Azkenik, eta gradu amaierako lanen zuzendariei egiten zaien aintzateste eskasa nolabait leuntzeko, zuzendutako lan bakoitzeko asteko tutoretza ordu bat erreserbatzea onartzen da, ikasleriari arreta emateko bi ordu utzi behar badira ere.

Graduko lehenengo mailako ikasleri berriari egin zitzaion Ikastegiaren aurkezpena: Irailaren 12an, ikasturte berriaren hasierarekin batera, Graduko lehenengo mailako ikasle berriei Ikastegia aurkezteko saioak ospatu ziren. Eskolako zuzendaria, Ángel Elías, eta Ikasleen Kontseiluko lehendakaria, Guiomar García, arduratu ziren web orria eta Ikastegiko instalazioak aurkezteaz. Jarraian egindako inkestak topaketaren balorazio oso positiboa adierazi zuen.

Egokitze-ikastaroko ikasleriari ongiatorria: Urriaren 19an Ikastegiko Gradu Aretoan egokitze-ikastaroa egiten ari diren lehenengo promozioiko ikasleei ongiatorria emateko topaketa egin zen. Matrikula arazoei eragotzi zuten topaketa hori lehenago ospatzea. Ekitaldira, non Eskolako zuzendaria, Ángel Elías, eta Ikasleen Kontseiluko lehendakaria, Guiomar García, egon ziren, matrikulaturik dauden 21 pertsonetatik 10 hurbildu ziren. Horiek han egotea baloratu eta Ikastegia aurkeztu ondoren, iritzien hartu-eman egin zen, zeinetan lan esperientzia dela eta kredituak aintzatestearen ikasleen interesa nabarmendu zen. Web orrian egokitze-ikastaroaren inguruan egin daitezkeen ohiko galderen erantzunak jasoko dituen atal berri bat jartzeko proposamena aintzat hartu zen.

Ikasleriaren mugikortasuna: Ikasturte honetan 5 dira beste unibertsitate batzuetatik gurera ikastera etorri diren ikasleak, 4 Rennes-eko Unibertsitatetik eta 1 Valentiako Unibertsitatetik. Gure ikasleriari dagokionez, 5 dira beste unibertsitate batzuetan ikastea aukeratu duten ikasleak, 2 Cadizko Unibertsitatean, 1 Salamancako Unibertsitatean, 1 Las Palmaseko Unibertsitatean eta 1 Cundinamarakako Unibertsitatean, Kolonbian.

Praktikak eta lan poltsa: 2010/2011 ikasturtean 36 ikasle egin dituzte praktikak, praktika eskaintzak 56 izan diren bitartean. Egindako estatistikek agerian jartzen duten daturik esanguratsuenen arabera, praktikak egiten dituzten ikasleek jasotzen duten batz besteko poltsa 129.06 eurokoa da. Gainera, praktiketatik sei lan kontratu gauzatu dira. Praktiken balorazioari dagokionez, ikasleriaren batz besteko puntuazioa 4.41koa da eta enpresena 4.20koa, pertsona praktikara egokitzea 4.46an gelditzen den bitartean, kasu guztietan 5 punturen gainean. Bestalde, Eskolako Praktika Zerbitzuak lan poltsan bost eskaintza jaso ditu.

Eskola Batzarrera hauteskundeak: Azaroaren 22an ikasleriak Eskola Batzarreko ordezkariak berritzeko aukera izango du, multzo honi dagozkion 6 ordezkariak hautatzeko hauteskundeak ospatuko dira eta. Horretarako, urriaren 17an ospatutako Batzarrak hauteskunde horiek gidatuko dituen hauteskunde-egutegia onartu zuen. Hautagai zerrendak

aurkezteko epea azaroaren 4an 12.00etan amaitzen da eta hauen behin betiko aldarrikapena azaroaren 11an egingo da. Hauteskundeak egin eta gero, hautatutako zerrenden behin betiko aldarrikapena azaroaren 28an egingo da. Botoa alde zuzenetik ematea nahi dutenek azaroaren 14, 15, 16 eta 17an egin dezakete.

Diploma Banaketan Ekitaldia: Tamalez, hainbat arrazoigatik, ekonomikoak barne, Eskolak azken urteotan ohikoa den Diploma Banaketan Ekitaldirik ez du ospatuko. Hala ere, asmoa ez da ekitaldi hori behin betiko baztertzea. Horregatik, egoerak hoherantz egiten duenean, berriro ekingo zaio ohitura horri, 2010/2011 ikasturteko titulatu guztiei bertan parte hartzeko gonbitea luzatuz.

Lan Segurtasun eta Osasunean Masterra: Urriaren 27an, Ángel Elías, Koldo Irurzun eta Gorka Moreko Lan Segurtasun eta Osasunean Masterrean izan ziren gaur dagoen enplegua eta izan daitezkeen alternatibei buruz hitz egiten. Saioa oso interesgarria izan zen eta aurki grabatutako bideoa eskegiko da Lan Harremanak tb-n, <http://www.livestream.com/working>.

2007' Prom-en Laneratzeari buruzko Inkesta: UPV/EHUK, Lanbidek – Lan Merkatuaren Behategiak 2010eko azaroan eta abenduan 2007ko promozioan titulaturakoei telefonoz egindako elkarrizketen emaitzak argitaratu ditu. Urte horretan 90 pertsonak amaitu zuten Lan Harremanetan Diplomatura (%67a emakumeak eta %17a euskaraz). Karrera lortutako batz besteko nota 7.0koa izan zen, ikasketen batz besteko iraupena 4.5 urtekoa eta batz besteko adina 26 urtekoa. Titulatu ziren 90 pertsonetatik 71k erantzun zuten. Horietatik 53 lanean ari ziren (16 gizon eta 37 emakume). Pertsona hauen jarduera-tasa %83koa da, enplegu-tasa %75ekoa (%77koa emakumeen kasuan) eta langabezia-tasa %10ekoa (%8koa emakumeen kasuan). Datu horiek agerian jartzen dute beste titulazio ekonomiko-juridikoak amaitu zituztenen batz bestekoa hobea dela, hauen langabezia-tasa %15ekoa baita. Ikasketak amaitu zituztenetik enplegua bilatzen hasi arte 7 hilabete igaro ziren (4 emakumeen kasuan), lehenengo enplegua topatu arte batz beste 4 hilabete pasatu ziren bitartean (3 emakumeen kasuan). Egiten dituzten lanei dagokienez, %70ak (%65a emakumeen kasuan) bat datorren enplegua du (enpresen zuzendaritza, lan harreman eta giza baliabideen sailerako zuzendaritza, merkaturatze, marketing eta salmenten sailerako zuzendaritza, merkatal gerentzia, giza baliabideetako profesionalak, giza baliabideen prestakuntzarako teknikariak, administrazio erantzuleak, enpresen aholkularitza, lan aholkularitza edo gizarte graduatua, giza baliabideetan teknikariak, prebentzioan teknikariak, lan segurtasuna eta ingurumenaren kontrola, kalitatean teknikariak, etab.), lanpostua egonkorra izateaz gain. Hilero jasotzen duten soldata garbia 1.357 eurokoa da (1.248 eurokoa emakumeen kasuan). Bat ez datorren enpleguan lan egiten dutenen artean administrazio-erako lanak egiten dituztenak, denda, biltegi eta antzeko saltzaileak, ordenantzak eta garraio-peoiak eta birjartzaileak nagusitzen dira. Elkarrizketa hauetatik eratorritako datuak sakon ezagutzeko, http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/eu/contenidos/noticia/31102011_encuesta_insercion/eu_noticia/adjuntos/Encuesta_de_insercion_laboral_Prom2007.pdf.

ESKOLAK ANTOLATU EDO BERMATUTAKO JARDUERAK

Lan Harremanetan Berdintasun eta Bereizkeria Ezari buruzko Jardunaldia: Jardunaldi hau azaroaren 3an ospatuko da Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Gradu Aretoan. Zuzendari eta koordinatzaileak Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Saileko Olga Fotinopoulou eta Edurne López irakasleak dira eta UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren babespean antolatu da. Hitzaldien programan Magdalena Nogueira Guastavino (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Lan eta Gizarte Segurantzako Katedraduna), Amparo Ballester Pastor (Valentziako Unibertsitateko Lan eta Gizarte Segurantzako Katedraduna) eta Jaime Cabeza Pereiro (Vigoko Unibertsitateko Lan eta Gizarte Segurantzako Katedraduna) ageri dira hizlari gisa. Hauek jorratuko dituzten gaien artean konstituzio ikuspegitik lan harremanetan berdintasuna eta sexu arrazoigatik bereizkeria eza, gizonen eta emakumeen arteko erantzukizun bateratua lan harremanen eremuan eta soldataren esparruan gizon eta emakumeen artean ematen den bereizkeria aipatu behar dira. Jardunaldia parte hartzaileen arteko elkarrizketa / eztabaida batekin amaituko da.

Eskolak antolatutako ikastaro osagarriak: Eskolak, Bizkaiko Gizarte Graduatuen Elkargo eta Logic Controlean, 2011/2012 ikasturtean eskainiko diren ikastaro osagarriak antolatu ditu. Ikastaroetan nominak eta gizarte aseguruak, giza baliabideak eta kontabilitatea jorratuko dira. Ikastaro hauen egutegi eta ordutegiari buruzko informazio orokorra Ikastegiko web orrian daude, http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/eu/contenidos/noticia/rlll_cursos_complementarios/eu_noticia/cursos_complementarios.html. Hori osotuz, bakoitzaren datak hurbiltzen diren heinean, informazio gaurkotua argitaratuko da web orrian bertan. Honela, urriaren 28an Nomina eta Gizarte Aseguruei buruzko Ikastaroa hasi zen. Inaugurazioan Alipio García, Bizkaiko Gizarte Graduatuen Elkargoko presidentea, izan zen. Honek ikasleria animatu zuen era honetako ikastaroak egitera enpresetan asko eskatzen baita. Óscar Landetak, bere aldetik, ideia berean sakondu zuen, trebakuntza mota hori programa erabiltzen duten enpresetan ohikoa izanik, lana bilatzea errazten duen baliabidea dela adierazterakoan. Azkenik, Rosa María Ahumadak aurrekoa azpimarratu zuen enpresa eta ikasleriaren artean egindako ikasketa baten emaitzek eremu honetan trebakuntzaren beharra agerian jarri duela azaltzerakoan. Ikastaroaren amaieran azterketa bat egingo da. Hori gaituz gero, inskripzio-kuotaren %50a itzuliko da.



Garapenaren paradigma eztabaidan: enpresa transnazionalak eta Giza Eskubideak: Bakea ta Duintasuna Elkartek, Kolektiba Colombia, Hegoa eta UPV/EHUko Lan Harremanen Eskolaren laguntzarekin, azaroaren 14a eta 17a bitartean ospatuko den Amerika Latinan lan egiten duten Multinazionalen Behategiaren (OMAL) VI. Ikastaroa antolatu du. Lehenengo hiru saioak Zubiria Etxeko (Sarrikon) Gradu Aretoan egingo dira, 16.45etatik 20.00etara bitartean eta azkenengoa La Bolsa Eraikinean (Pilota Kalea 10, Bilbao), 18.30etatik aurrera. Ikastaroan honako hizlariak hartuko dute parte: Rafael Puente (Evo Morales Boliviako presidentearen gobernuko ministroorde ohia eta Boliviako Dokumentazio eta Informazio Zentroko laguntzailea), Miren Etxezarreta (ekonomialaria, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedradun emeritua eta London School of Economics-tik doktorea), Elaine Tavares (kazetari brasildarra eta Brasilgo Santa Catarina Unibertsitate Federaleko Amerika Latinako Ikasketen Institutuko kidea), Jeffery López (Costa Rican herri indigenen eskubideen defentsan lan egiten duen Ditsö Herri Ekimenean Elkarteko kidea), Pablo Martínez Osés (Filosofia eta Letretan lizentziatua, Nazioarteko Harremanetan eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan aditua eta 2015 Plataformako idazkari exekutiboa), Iván Forero (1998tik erbestean dagoen Giza Eskubideen Defendatzaile kolonbiarra, soziologo eta historialaria, Justicia por Colombia Plataformako laguntzailea) eta Pedro Ramiro (Madrilgo Unibertsitate Complutensetik Zientzia Kimikoetan doktorea eta Amerika Latinan lan egiten duten Multinazionalen Behategiaren (OMAL) koordinatzailea). Programak aurreikusten dituen ponentziak honako hauek dira: “*Kapitalismoaren krisia: garapenaren paradigma zalantzan*”, “*Erraldoi translatinoak: Brasileko transnazionalak Latinoamerikan*”, “*Baliabide naturalen esplotazioa vs. Bizitze ona Bolivian*”, “*Lurraldearen aldeko eta transnazionalen aurkako borroka Costa Rican*”, “*Europar Batasuna eta Kolonbiaren arteko merkataritza askea bultzatzeko ituna*” eta “*Nazioarteko lankidetzaren etorkizuna gaur egungo garapen ereduaren barnean*”. Ikastaroa “*Garapenerako aliantza publiko-pribatuei buruzko eztabaida. Baliteke kapitalismo inklusibo bat?*” izenburupeko mahai-inguruarekin itxiko da. Izena emateko epea azaroaren 12an amaitzen da eta gehienez 80 lagun hartuko dira. Informazio gehiagorako eta izena emateko inprimakia lortzeko, <http://www.omal.info/www/cursos/inscripcion-curso-omal.php> edo 946552944 telefonoa.

INTERESEKO AKORDIO ETA ERABAKIAK

UPV/EHUko Klaustorako hauteskundeak: Datorren azaroaren 22an UPV/EHUko Klaustorako hauteskundeak ospatuko dira. Gaurko egunean behin betiko erroldak dagoeneko argitaratu dira. Lan Harremanen Unibertsitate Eskolari dagokionez, lotura iraunkorra duten IIP doktoeen errolda 21 pertsonakoa da, lotura iraunkorra duten IIP ez doktoereena 17koa eta bestelako IIParena 15koa. Gauzak horrela, Ikastegiari lehenengo taldean 1.01eko ordezkaritza dagokio. Ikasleriaren kasuan, 464 pertsonak osatzen dute errolda (masterrekoak beste errolda batean daude) eta 1.3426ko ordezkaritza dagokio.

[1027/2011 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez Goi Mailako Hezkuntzarako Espainiar Kualifikazio Markoa ezartzen den](#)

[UPV/EHUko Klaustroaren Funtzionamenduari buruzko Arautegia](#)



Boletín de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales

Número 13, octubre 2011



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

ÍNDICE

PRESENTACIÓN	10
PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS.....	10
POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA	10
RECURSOS.....	11
ALIANZAS	12
ALUMNADO	13
ACTIVIDADES ORGANIZADAS O AVALADAS POR LA ESCUELA	14
ACUERDOS Y DECISIONES DE INTERÉS.....	16
RECURSOS Y RESEÑAS DE INTERÉS.....	17

[Euskerako edukira joateko klikatu hemen](#)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad
del País Vasco

eman ta zabal zazu
Euskal Herriko
Unibertsitatea

PRESENTACIÓN

Ya hemos iniciado el curso 2011/2012. Tenemos un buen número de nuevas personas entre nosotras/os, ya que al nuevo alumnado de primer curso de Grado debemos añadir las 21 personas que se han matriculado en el curso puente. El Centro, por su parte, continúa con el desarrollo de los proyectos puestos en marcha con anterioridad. El más destacable sea, quizás, el relativo a la calidad. Con ese propósito las personas responsables de los procesos siguen trabajando en su cometido, además de continuar con su formación sobre la materia. La etapa recientemente cerrada ha llevado a la necesidad de reflexionar sobre temas tales como el trabajo fin de grado, que ha desembocado en un nuevo cambio de la normativa. Con el nuevo curso se han habilitado nuevos espacios de la Escuela para el uso común, además de modificar la utilización de otros. Se espera que todos estos cambios redunden en beneficio de toda la colectividad.

En la redacción de este boletín hemos tratado evitar el lenguaje sexista.

Si quieres enviar algo para que sea publicado [remítelo aquí](#).

PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

Premio Extraordinario de Doctorado: El profesor de nuestra Escuela Juan Hernández Zubizarreta ha obtenido el Premio Extraordinario de Doctorado (Ciencias Sociales y Jurídicas, Curso Académico 2008/2009) por su tesis doctoral *“Sistemas de regulación de las empresas transnacionales en el marco de la globalización económica: códigos externos e internos en el ámbito de las relaciones laborales”*. Zorionak!

Personal de Administración y Servicios: Tras el verano Javier Laforga, que llevaba cierto tiempo trabajando en la secretaría del Centro, ha pasado a trabajar en la Biblioteca en comisión de servicios. En su lugar, tenemos entre nosotras/os a Rafael Ruiz Sánchez. Como este cambio coincidió con el período de matrícula y automatrícula, desde Gerencia se nos concedió que Aurora Arnaiz trabajara en la Escuela como personal de apoyo, si bien su vínculo con el Centro terminará a finales del mes 30 de noviembre.

XXII Jornadas Luso-Españolas de Gestión: El Departamento de Economía, Sociología y Gestión y el Centro de Estudios Tras-disciplinares para el Desarrollo de la Universidad de Tras-os-Montes y Alto Duero (Vila Real, Portugal) organizan estas Jornadas, que se celebrarán en la propia Universidad del 1 al 3 de febrero de 2012. En esta ocasión se ha propuesto el tema *“Sociedad, Territorios y Organizaciones: Inclusiones y competitividad”*, por su actualidad, ya que las sociedades están en una encrucijada, al enfrentar una crisis marcada por el desempleo, la pobreza y la exclusión social. Los territorios están desafiados permanentemente a promover la competitividad y la sostenibilidad en un mundo global y con frecuencia paradójico. Las organizaciones de los diversos sectores y áreas buscan respuestas y tratan de construir nuevos modelos de gestión y gobernanza, más participativos, responsables e inclusivos. Están invitados/as a participar en este evento especialistas en gestión, profesionales y académicos/as interesados/as en la administración, en las organizaciones empresariales y en las áreas del tercer sector, donde podrán compartir sus investigaciones empíricas, desarrollos teóricos y casos prácticos. La fecha límite para el envío de ponencias es el 15 de noviembre (antes del 8 de diciembre se comunicará su aceptación o rechazo) y la de inscripción sin recargo el 15 de diciembre (las inscripciones realizadas entre el 16 de diciembre y el 15 de enero de 2012 tendrán un recargo). Para obtener información adicional, puede contactarse con jornadas.gestao@utad.pt.

POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA

Matrícula del curso 2011/2012: Los números derivados de la culminación del proceso de matriculación del curso 2011/2012 son los siguientes: en primer curso de Grado hay matriculadas/os 114 alumnas/os, en segundo 108, en tercero 72 y en cuarto 102. Por su parte, en Diplomatura hay matriculadas/os 6 alumnas/os en primer curso, 10 en segundo y 61 en tercero. Además, respecto de los Másteres que se ofrecen en el Centro, en el de Gestión de los Recursos Humanos y del Empleo se han matriculado 33 personas y en el de Seguridad y Salud en el Trabajo 35. De esta forma, el número total de alumnado matriculado en este curso asciende a 541, 396 en Grado (incluidas/os las/os 21 del curso puente), 77 en Diplomatura y 68 en los Másteres.

Junta de Escuela: En la Junta celebrada el 17 de octubre de 2011, la dirección del Centro informó a las personas asistentes sobre cuestiones propias del final del curso pasado e inicio del nuevo como son matrícula, trabajos fin de grado defendidos, movilidad y prácticas del alumnado, etc. Por lo que a los acuerdos adoptados se refiere, salieron adelante el documento sobre competencias y coordinación de módulos, el adelanto de la convocatoria de septiembre a junio en aquellas asignaturas de la Diplomatura que no tengan docencia, las modificaciones introducidas en la normativa sobre trabajo fin de grado, el Reglamento de la Comisión de Calidad del Centro (que ya estaba aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU), el calendario electoral a elecciones a Junta de Centro en el estamento estudiantil, la sustitución de plazas de profesorado y el reconocimiento de cursos avalados por la Escuela. Por lo que a la denominación del Centro se refiere, la Junta aprueba la propuesta de dirección de solicitar al Rector que se lleven a cabo las acciones necesarias para que la Escuela pase a denominarse Facultad de Ciencias del Trabajo, tal como se viene solicitando desde hace más de dos años.

